## Kultura Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 85/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 14koa. Honen bidez, deialdi publikoa arautzen da, 2010eko ekitaldian, Bizkaiko Lurralde Historikoan antzerkiaren eta dantzaren ekoizpenaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateei, sozietate kooperatiboei eta pertsona fisikoei eurek egindako arte eszenikoen ikuskizunak sustatzeak dakartzan gastuen zati bat finantzatzeko diru-laguntzetarako.**

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak honako eskumen hauek ditu bere gain hartuta: «Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultur erakundeak sortu eta mantentzea» Eskumen hori betearazteko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen barruan, kultura diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardute-lerro batzuk dauzka abian.

Zehatzago esateko, herri administrazio guztiei onartutako kultura sustatzeko eskumena garatzeko, foru erakunde horrek hainbat diru-laguntza ildo ditu, Bizkaiko elkarte, enpresa eta toki erakundeei laguntza emateko euren kultur jarduera gara dezaten. Horrez gainera, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren hitzaurrean eta ezarri beharreko gainerako arautegian jasotakoaren arabera, lurralde historikoek, euren eskumenak garatu eta betetzeko, araugintza-ahalmen autonomoa duteneko ekonomia- eta finantza-eremuari dagokio diru-laguntzen gaia, Ekonomia Itunaren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Goian definitu den esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren ustez, Bizkaiko antzerki eta dantza konpainiak lurralde honetako kultur elkarteen artean funtsezkoak dira, oro har, kultura sustatu, bultzatu eta hedatzeko eta, bereziki, arte eszenikoak zabaltzeko.

Halaber, antzerkiaren eta dantzaren arloetako erakundeek helburu hori lortzen laguntzen dutela uste du. Ondorioz, lurralde historikoan enpresa horiek sortu eta mantentzeko eta euren ikuskizun eszenikoak sustatu, hedatu eta zabalduko dituzten proiektuak eta programak burutzeko diru-laguntzak nola eskatu eta nola eman arautuko duen araudi bat ezarri behar da.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39.k) eta 64.3. artikuluek xedatutakoa ikusita, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, diru-laguntzen araudia onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak (lehen aipatutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena) eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen uztailaren 26ko 132/2006 Foru Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, Kultura Saileko foru diputatu andre txit argiak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 14ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Foru dekretu honen xedea antzerkiaren eta dantzaren arloetako ikuskizun eszenikoak sustatzeko foru diru-laguntzen deialdi publikoa araupetzea da.

## Departamento de Cultura

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 85/2010 de 14 de junio, por el que se regula la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas y personas físicas que ejerzan actividades empresariales, en los ámbitos de la producción de teatro y de danza del Territorio Histórico de Bizkaia, destinadas a financiar parte del gasto que origina la promoción de los espectáculos de artes escénicas desarrollados por las mismas durante el ejercicio 2010.**

La Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con cuanto establece la Ley vasca 27/1983, de 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos», tiene asumidas las competencias exclusivas, entre otras, en las que hacen referencia a: «Creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del Territorio Histórico». En aras a hacer efectiva la misma, la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha diversas líneas de actuación, tendentes, en su propio ámbito competencial, al fomento, la promoción y difusión de la cultura en sus distintas disciplinas.

Concretamente, y en el desarrollo de la competencia de fomento reconocida a todas las administraciones públicas, esta Institución Foral cuenta con varías líneas de subvención dirigidas a apoyar a empresas, asociaciones y otras entidades locales de Bizkaia en el desarrollo de su actividad cultural propia. Además, y tal y como recoge en su Preámbulo la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y demás normativa de aplicación, esta materia subvencional se encuentra incluida en el ámbito económico financiero en el que los Territorios Históricos tienen capacidad de regulación para el desarrollo y ejecución de sus competencias de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 48 del Concierto Económico.

En el marco así definido, el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, entiende que las compañías de teatro y de danza de Bizkaia, son pieza clave en el entramado asociativo cultural del Territorio para el fomento, promoción y difusión de la cultura en general y en especial para la divulgación de las artes escénicas.

Igualmente considera que tales entidades teatrales y de danza coadyuvan a dicho fin, por lo que se hace conveniente y necesario establecer la normativa reguladora de solicitud y concesión de subvenciones, en concepto de ayuda económica, a éstas, que induzca y favorezca su creación y mantenimiento en el Territorio Histórico, así como que facilite el desarrollo de los proyectos y programas de promoción, difusión y divulgación de sus propios espectáculos escénicos.

En virtud de lo expuesto y vistos los artículos 17, 39.k), y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto regula el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, y por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia132/2006, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Cultura, a propuesta de la Ilma. Sra. diputada foral Titular del Departamento de Cultura, previa deliberación y aprobación de consejo de gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 14 de junio de 2010,

SE DISPONE:

**Artículo 1.—*Objeto***

1. Constituye el objeto del presente Decreto Foral regular la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a la promoción de espectáculos escénicos de teatro y danza.

cve: BAO-BOB-2010a120

Diru-laguntza horiek norgehiagoka sistema bidez emango dira. Hain zuzen ere, epaimahai kalifikatzailea eratuko da eta hark aurkezten diren eskabideak erkatuko ditu eta, foru agindu honetako 5. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, puntuaziorik altuena lortzen dutenei emango die diru-laguntza, lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren eta aurrekontuko partidan zainpetutako zenbatekoa muga izanik.

2. Ikuskizun eszenikoak sustatzeko jardunetan izan den eta diruz lagungarria izan daitekeen gastua 2010eko ekitaldiaren barrukoa izan beharko da.

3. Antzerkiaren eta dantzaren ekoizpenaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateen, sozietate kooperatiboen eta pertsona fisikoen (sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan dituztenak) arte eszenikoen ikuskizunak sustatzeko gastuak lagunduko dira diruz.

4. Foru dekretu honen helburu bakarra (ikuskizun eszenikoak sustatzeari dagokionez, eta ez horiek ekoizteari dagokionez) eskatzaileek gauzatzen duten ekintza lagundu eta osatzea izango da, ez proiektuaren burutzapenaren ondoriozko gastu guztiak finantzatzea.

5. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude jarduera hauek:

— Antzerki eta dantza talde amateurrek egiten dituzten egitarauak eta proiektuak.

— Antzerki dramatikoko eskolek, publikoek zein pribatuek, egiten dituzten egitarauak.

— Arte eszenikoen arlo guztietako trebakuntzarako egitarauak eta proiektuak, eta ikuskizun eszenikoen ekoizpena xede duten beste guztiak.

— Legezko antzerki edo dantza enpresa ez diren erakunde publiko edo pribatuek egiten dituztenak.

— Antzerkiaren eta dantzaren ekoizpenaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateek, sozietate kooperatiboek eta pertsona fisikoek (sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan ez dituztenek) antolatzen dituzten arte eszenikoen ikuskizunak.

— Ikuskizun eszenikoak (antzerkia eta dantza) ematen diren aretoen enpresaburuek, jabeek edo errentariek egiten dituzten promozio-ekintzak.

— Antzerki eta dantza-ikuskizunak ekoiztea xede ez duten erakundeek egiten dituzten sustapenaren arloko ekintzak.

**2. artikulua.—*Subjektuak***

Foru dekretu honetan araupetutako diru-laguntzak hauek jaso ditzakete: antzerkiaren eta dantzaren ekoizpenaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateek, sozietate kooperatiboek eta pertsona fisikoek, baldin eta JEZren dagozkien epigrafeetan (96510; 96520; 96530; 96540) alta emanda badaude eta sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badituzte (pertsona fisikoak eta juridikoak).

**3. artikulua.—*Agiriak***

1. Diru-laguntzen eskabideak eskaera-orri ofizialean aurkeztu behar dira (eredua foru dekretu honen I. eranskinean dago), antzerkiaren eta dantzaren ekoizpenaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituen merkataritzako sozietatearen edo sozietate kooperatiboaren titularrak edo pertsona fisikoak sinatuta, edo haren legezko ordezkariak. Horrez gainera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) fotokopia.

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 5, proponiendo la adjudicación de las subvenciones forales a aquéllas que hayan obtenido una mayor puntuación y teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

2. El gasto susceptible de ser subvencionado y referido a actuaciones de promoción de los espectáculos escénicos, deberá desarrollarse durante el ejercicio 2010.

3. Será objeto de subvención el gasto en promoción de espectáculos de artes escénicas que lleven a cabo las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas y personas físicas que ejerzan actividades empresariales, en los ámbitos de la producción de teatro y de danza, con domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

4. La finalidad del presente Decreto Foral será únicamente apoyar y completar la acción que desarrollan los y las solicitantes (en lo que hace referencia a la promoción de espectáculos escénicos, no a la producción de éstos), nunca financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución del proyecto.

5. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto Foral:

— Los programas o proyectos desarrollados por grupos de teatro y de danza amateur.

— Aquellos programas que llevan a cabo las Escuelas de Arte Dramático, de titularidad pública o privada.

— Los programas o proyectos orientados a la formación en las diversas áreas de las artes escénicas, así como aquellos otros cuyo fin sea la producción de espectáculos escénicos.

— Todos aquellos que provengan de entidades o instituciones públicas o privadas, que no tengan la consideración legal de empresas teatrales y de danza.

— Los espectáculos de artes escénicas que sean producidos por las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas y personas físicas que ejerzan actividades empresariales, en los ámbitos de la producción de teatro y de danza, cuyo domicilio fiscal y social no estén radicados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

— Las acciones de promoción que realicen los empresarios/as, propietarios/as o arrendatarios/as de salas de exhibición de espectáculos escénicos (teatro y danza).

— Las acciones de promoción desarrolladas por entidades cuyo fin social no sea la producción de espectáculos escénicos de teatro y danza.

**Artículo 2.—*Sujetos***

Podrán ser sujetos de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas y personas físicas que ejerzan actividades empresariales, en los ámbitos de la producción de teatro y de danza, estén dados de alta en los correspondiente epígrafes del I.A.E. (96510; 96520; 96530; 96540) y cuenten con domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia (personas físicas y jurídicas).

**Artículo 3.—*Documentación***

1. Las solicitudes de subvención se presentarán en la instancia oficial que figura como anexo I del presente Decreto Foral, suscrita por el/la titular de la sociedad mercantil, sociedad cooperativa o persona física que ejerza actividades empresariales, en los ámbitos de la producción de teatro y de danza o representante legal de la misma, junto con la documentación que a continuación se relaciona:

a) Fotocopia del Código de Identificación Fiscal (C.I.F.).

cve: BAO-BOB-2010a120

b) Eskatzaileak 2010eko ekitaldian egingo dituen ikuskizunak sustatzeko plana; ondoko hauek zehaztu behar dira:

— Gastuen aurrekontua, kontzeptuka banakatuta (eredua II. eranskinean).

— Diru-laguntza aurkezten den egunera arte eginiko eta 2010. urtea amaitu arte aurreikusita dauden jardueren zerrenda, honako datu hauek dituela:

• Ikuskizunaren titulua.

• Eguna.

• Lekua (Estatuan bada, udalerria eta probintzia; Lurralde Historikoan bada, udalerria; atzerrian egiteko ikuskizunak badira, lekua eta herrialdea).

• Emanaldi bakoitzerako egiaztatutako diru-sarrerak eta egiaztatzeko daudenak (BEZa barne).

c) Eskabidea sinatzen duen pertsonaren ahalordetza ziurtatzen duen agiria.

d) Eskatzailearen ibilbidea azaltzen duen memoria, gutxienez honako hauek jasotzen dituena:

— Zein urtetan ekin zion jarduerari enpresa jarduerak egiten dituen merkataritzako sozietateak, sozietate kooperatiboak edo pertsona fisikoak.

— Eskatzaileak sortu zenetik egindako jarduerak:

• Eratu zenetik ekoiztu dituen ikuskizunak, gutxienez, 10 emanaldi izan badituzte.

• Eratu zenetik jaso dituen sariak. Horien egiaztagiriak aurkeztu behar dira.

— 2009. urtean egin dituen jardueren zerrenda: tokia, data eta ikuskizuna zehaztu beharko dira.

e) Sektoreko topagune profesionaletan egon dela egiaztatzen duten agiriak.

f) Sozietatearen estatutuak edo hura eratu zeneko egiaztagiriak, sozietatearen egoitza fiskala eta soziala jasotzen dituztenak. Egoitza horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan egon behar dute, eta hori legezko dokumentu bat aurkeztuta egiaztatu beharko da: Eskatzailearen zerga-egoitza beren-beregi jasotzen duen egiaztagiria.

g) Pertsona juridikoak badira, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

h) EJZren azken ordainagiriaren fotokopia, 2010. urtean jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, edo EJZn honako epigrafeetako batean alta emanda dagoela ziurtatzeko agiria: 96510; 96520; 96530; 96540.

**4. artikulua.—*Eskabideak eta epeak***

1. Eskabideak Kultur Ekintza Zerbitzuko bulegoetan (Errekalde zumarkalea, 30, 2. solairua, Bilbo) aurkez daitezke astelehenetik ostiralera, 8:30 - 13:30 bitartean, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazioa Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4. artikuluan zehaztu duen moduan. Eskabidea antzerki edo dantza erakundearen titularrak edo pertsona baimenduak sinatu behar du.

2. Eskabideak foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik 2010eko irailaren 10era arte (ostirala) aurkeztu ahal izango dira, biak barne.

3. Eskabideak guztiz bete ezean, edo foru dekretu honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari agindeia bidaliko zaio eta bertan eskatuko zaio hamar (10) asteguneko epean falta dena betetzeko edo behar diren agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egin ezean eskabidean atzera egin duela joko dela eta eskabidea artxibatu egingo dela berariazko ebazpena eman ondoren.

b) Plan de promoción de los espectáculos del/la solicitante para el ejercicio 2010, en el que se incluya:

— Presupuesto de gastos desglosado por conceptos según el modelo del anexo II.

— Relación de actuaciones realizadas a la fecha de presentación de la subvención y previstas realizar hasta finales del 2010 con indicación de:

• Título del espectáculo escénico.

• Fecha de celebración.

• Lugar de actuación (se deberá especificar el municipio y provincia del Estado, municipio del Territorio Histórico, así como si se trata de actuaciones en el extranjero se especificará lugar de la actuación y País en que tenga lugar).

• Ingresos acreditados y por acreditar (I.V.A. incluido) de cada representación.

c) Documento que acredite el apoderamiento que ostenta la persona firmante de la solicitud.

d) Memoria descriptiva de la trayectoria del/la solicitante que, al menos, entre otros, hará referencia a:

— Año de inicio de la actividad de la sociedad mercantil, sociedad cooperativa o persona física que ejerza actividades empresariales.

— Actividad desarrollada por el/la solicitante durante sus años de existencia:

• Espectáculos producidos desde su constitución como tal, que hayan sido representados un mínimo de 10 funciones.

• Premios obtenidos desde su constitución como tal, debiendo de aportarse acreditación documental de los mismos.

— Relación de las actuaciones realizadas en el año 2009 con indicación expresa de lugar, fecha y espectáculo representado.

e) Documentación acreditativa de su presencia en encuentros profesionales del sector.

f) Estatutos o documentación acreditativa de su constitución, en la que figurará su domicilio fiscal y social, que deberá encontrarse fijado en el Territorio Histórico de Bizkaia, aspecto éste que deberá acreditarse mediante la presentación de documento legal probatorio en el que de forma explícita se haga constar el domicilio fiscal del/la solicitante.

g) En el caso de personas jurídicas, certificación acreditativa de estar inscrita en el Registro correspondiente.

h) Fotocopia del último recibo del IAE que habilite para el ejercicio de la actividad durante el año 2010 o justificante de estar dado de alta en el IAE en alguno de los siguientes epígrafes: 96510; 96520; 96530; 96540.

**Artículo 4.—*Solicitudes y plazos***

1. Las solicitudes se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Acción Cultural, sitas en Alameda de Rekalde, número 30-2.º de Bilbao (de lunes a viernes de 8:30 a 13:30 h.), o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 4/99, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Público Común, siendo el/la titular o persona autorizada de la entidad teatral o de danza quien suscriba la petición.

2. El plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación del presente Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia», hasta el 10 de septiembre (viernes) de 2010, ambos inclusive.

3. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá al/a interesado/a para que en plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido/a de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

cve: BAO-BOB-2010a120

4. Beharrezkoa izanez gero, Kultur Ekintzako Zerbitzuak eskabideak ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkie eskaera egin duten erakundeei. Agindeia jaso duen eskatzaileak agiriok ezarritako epearen barruan aurkezten ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta eskabidea artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

**5. artikulua.—*Irizpideak***

1. Diru-laguntzen eskabideei buruzko ebazpen-proposamena eman eta kopuruak ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak honako irizpide hauek eta horien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez ere 100 puntu dira, honela ezarrita:

1.1. Aurkeztutako promozio-plana. Gehienez 70 puntu emango dira; hona banakapena:

— Xede diren eremuak eta hartzaileak: Puntu bat (1) emango da 2010. urtean emanaldiren bat egingo edo egitekoa den Estatuko probintzia edo lurralde historiko bakoitzeko (Bizkaiko Lurralde Historikoa salbu), eta bi (2) puntu Espainiako estatutik kanpo emanaldiak egiten diren herrialde bakoitzeko. Gehienez, 30 puntu izango dira.

— Edizioaren eta publizitatearen gastuen ehunekoa promozio-planaren guztirako zenbatekoan; 20 puntu gehienez.
*

Kontzeptu hauen ziozko gastuak baizik ez dira zenbatuko: Material grafikoaren edizioa; ikus-entzunezko materialaren edizioa; web orriak sortzea, eguneratzea eta mantentzea eta publizitatea komunikabideetan.

Publizitate gastuei dagokienez, inola ere ezin dira zenbatu publizitate trukerako kontratuaren edo horren baliokide den figura baten zioz sortzen direnak, kontratua diru-laguntzaren eskatzaileak eta publizitate-zerbitzuak eskaintzen dituen erakundeak zuzenean, zein erakunde honek eta eskatzaileak loturaren bat edo partaidetza duen bitartekaritzako erakunde batek itundu.

— Edizioaren eta publizitatearen gastuen ehunekoa promozio-planaren guztirako zenbatekoan; 10 puntu gehienez.

Banaketa-gastuetan ondokoak bakarrik zenbatuko dira: eskatzailearenetik kanpoko erakundeei haren ikuskizunak saltzeagatik edota horien berri zabaltzeagatik ordaindutako kopuruak eta eskatzailearen langileei ikuskizunen salmentan edota zabalkundean egindako lanaren kontraprestazio gisa esleitutakoak.

— Sektoreko jardunaldi profesionaletara bertaratzea, gehienez 10 puntu.

1.2. Eskatzailearen ibilbidea, kaudimena eta egonkortasuna. Gehienez 30 puntu emango dira; hona banakapena:

— Antzerkiaren eta dantzaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateek, sozietate kooperatiboek edo pertsona fisikoek, eratu zirenetik eskabidea aurkeztu arte, ekoiztu eta aurkeztutako ikuskizunak, baldin eta gutxienez 10 aldiz aurkeztu badute: 10 puntu gehienez.

— Antzerkiaren eta dantzaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateek, sozietate kooperatiboek edo pertsona fisikoek, eratu zirenetik eskabidea aurkeztu arte, euskara hutsez ekoiztutako ikuskizunak: 5 puntu gehienez.

— 2009. urtean egindako emanaldiak: 10 puntu gehienez.

— Antzerkiaren eta dantzaren arloetan enpresa jarduerak egiten dituzten merkataritzako sozietateek, sozietate kooperatiboek edo pertsona fisikoek bere ibilbidean lortu dituzten sariak (agiri bidez egiaztatutakoak), hau da, eurei edo eurek ekoiztutako lanei emanak: 5 puntu gehienez.

4. En aquellos casos que se considere necesario, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el/la requerido/a no presentase la documentación en el plazo que se establezca, se le tendrá por desistido de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

**Artículo 5.—*Criterios***

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos se establecen como sigue:

1.1. Plan de promoción presentado. Se concederá hasta un máximo de 70 puntos, desglosados del siguiente modo:

— Ámbitos y destinatarios a los que se pretende llegar: Se concederá un (1) punto por cada Provincia o Territorio Histórico del Estado (excepción hecha del Territorio Histórico de Bizkaia) en la que se actúe o prevea actuar durante este año 2010 y dos (2) puntos por cada País en el que se actúe fuera del Estado Español, hasta un máximo de 30 puntos.

— Porcentaje que representan los gastos destinados a edición y publicidad sobre el total del Plan de promoción, hasta un máximo de 20 puntos.

Se computarán con carácter exclusivo los gastos referidos a los siguientes conceptos: Edición de material gráfico; edición de material audiovisual; creación, actualización y mantenimiento de páginas Web, así como publicidad en medios.

Con relación a los gastos en concepto de publicidad, en ningún caso se computarán entre los mismos los originados como consecuencia del denominado Contrato de Intercambio Publicitario o figura equivalente, ya sea dicho contrato concertado directamente entre el/la solicitante de subvención y la entidad que ofrece sus servicios publicitarios, o ya sea el mismo concertado entre esta última y una entidad intermedia con quien el/la solicitante de subvención tenga algún tipo de vinculación o participación.

— Porcentaje que representan los gastos destinados a distribución sobre el total del Plan de Promoción, hasta un máximo de 10 puntos.

Dentro de los gastos de distribución, se computarán únicamente las cantidades abonadas a entidades externas a la/el solicitante por su labor de difusión y/o venta de espectáculos del/la solicitante, así como las asignadas al personal del/la solicitante, como contraprestación por su labor únicamente de difusión y/o venta de sus espectáculos.

— Presencia en encuentros profesionales del sector, hasta un máximo de 10 puntos.

1.2. Trayectoria, solvencia y estabilidad del/la solicitante. Se concederá hasta un máximo de 30 puntos, desglosados del siguiente modo:

— Espectáculos producidos desde su constitución como sociedad mercantil, sociedad cooperativa o persona física que ejerza actividades empresariales, en los ámbitos de teatro y de danza y estrenados a la fecha de presentación de solicitud, siempre y cuando se hayan representado un mínimo de 10 funciones: Hasta un máximo de 10 puntos.

— Espectáculos producidos únicamente en euskera desde su constitución como sociedad mercantil, sociedad cooperativa o persona física que ejerza actividades empresariales, en los ámbitos de teatro y de danza y estrenados a la fecha de presentación de solicitud: Hasta un máximo de 5 puntos.

— Número de actuaciones realizadas en el año 2009: Hasta un máximo de 10 puntos.

— Premios documentalmente acreditados, obtenidos durante su existencia como sociedad mercantil, sociedad cooperativa o persona física que ejerza actividades empresariales, en los ámbitos de teatro y de danza y otorgados expresamente a la compañía o a alguna de sus producciones: Hasta 5 puntos.

cve: BAO-BOB-2010a120

Proiektuak aurreko irizpideen arabera baloratuko dira; punturik gehien aurkeztutako dokumentazioaren bidez jasotzeko eskubidea frogatzen duten eskatzaileei emango zaie, eta hortik aurrera gainerakoei aurkeztutako proiektuaren proportziozko puntuazioa emango zaie.

Epaimahai kalifikatzailearen arabera proiektu bat 20 puntura heltzen ez bada, eskatzaileari ez zaio emango foru deialdi honetako diru-laguntzarik.

2. Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa erakunde eskatzaileak eskabidean promozioaren kontzeptuan (araztuta) ezarritako guztirako zenbatekoaren %50 izango da (deialdiaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak bazter utziko dira). Inola ere ezin izan daiteke bi kopuru hauetako txikiena baino gehiago: 100.000 euro edo 2010. urterako aurreikusitako emanaldien fakturazioaren %25.

**6 artikulua.—*Aholkularitza***

Eskatzaileek foru dekretu honetan ezarritakoa betez gauzatzen diren egitarauei buruz zalantzaren bat dutenean edo galderaren bat egin nahi dutenean, Kultur Ekintza Zerbitzuak emango du beharrezko laguntza teknikoa edo aholkularitza.

**7. artikulua.—*Epaimahai kalifikatzailea***

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Kulturako foru diputatu txit argiak izendatuko ditu, foru agindu bidez.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan izanda, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kultura Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

3. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, deialdi honetan ez da lehenbizi behin-behineko ebazpen proposamena emango eta gero interesatuei entzunaldiaren izapidea eman, interesatuek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak bakarrik jasoko direlako prozeduran eta horiek baino ez direlako aintzat hartuko.

**8. artikulua.—*Ebazpena***

1. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultur Ekintzako Zerbitzuak eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du. Horren egiaztapena egin ondoren, eskatzaileren batek betebehar horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela ohartaraziz.

2. Proiektuak jaso ondoren, eskabideak Kulturako foru diputatu andre txit argiak ebatziko ditu dagokion foru aginduaren bidez, epaimahaiaren ebazpen-proposamena ikusi ondoren. Horretarako epea bi (2) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Epe hori bukatu ondoren eskabideari buruzko ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, eskabide hori ukatutzat joko da; hala ere, geroago, ebazpen adierazia eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko emango den foru agindua «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da, gehienez ere ebazpena eman eta handik hilabetera (1). Argitaratu ostean, gainera, foru dirulaguntza horien deialdirako eskabidea aurkeztu duten guztiei posta ziurtatuaren bidez emango zaie erabakiaren berri. Berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea agortu duela eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko foru diputatuari, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, edo Admi-

Las valoraciones de los proyectos se realizarán en razón de los criterios anteriormente expuestos, concediendo las mayores puntuaciones a los/as solicitantes que, según la documentación aportada, justifiquen hacerse acreedores a las mismas y, a partir de éstas, de forma directamente proporcional, al resto de los proyectos presentados.

Las solicitudes cuyos proyectos no alcancen un mínimo de 20 puntos, a juicio del tribunal calificador, no serán consideradas merecedoras de subvención al amparo de esta convocatoria foral.

2. El importe máximo de las subvenciones será de hasta el 50% del montante total que por el concepto de promoción sea presentado por la entidad solicitante una vez depurado, (excluyendo aquellos no directamente relacionados con el objeto de la convocatoria) que en ningún caso podrá exceder de la menor de estas dos cantidades: 100.000 euros o el 25% de la facturación por actuaciones previstas para el 2010.

**Artículo 6.—*Asesoramiento***

El Servicio de Acción Cultural prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta planteada por los y las solicitantes referida a los programas a desarrollar que se acomoden a lo establecido en el presente Decreto Foral.

**Artículo 7.—*Tribunal calificador***

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un tribunal calificador cuyos miembros serán designados por la Ilma. Sra. diputada foral de Cultura mediante orden foral.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Cultura, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

3. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a los/as interesados/as, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los/las mismos/as.

**Artículo 8.—*Resolución***

